UN DOCUMENTAL AL MES
HILEAN BEHIN DOKUMENTAL BAT

# DOCS DEL MES

SEPTIEMBRE 26 - JUNIO 27 IRAILAK 26 - EKAINAK 27

DÍAS - EGUNAK - **2026** - 09/09 - 07/10 - 04/11 - 09/12 - **2027** - 13/01 - 03/02 - 03/03 - 07/04 - 05/05 - 02/06

DOCS BARCELONA DISTRIBUTION
golem yamaguchi
Gobierno de Navarra Nafarroako Gobernua
Financiado por la Unión Europea NextGenerationEU
Plan de Recuperación, Transformación y Resiliencia

# DOCS DEL MES

09/09




| 19:30h | 93 min | VOSE |
|---|---|---|

**TÍTULO** AMAZOMANIA
**AÑO** 2026
**PAÍS** Suecia, Dinamarca, Francia
**IDIOMA** Portugués, sueco, inglés, francés y korubo
**DIRECCIÓN** Nathan Grossman

**PREMIOS**

Teddy Mejor Película documental – Berlinale 2026

FIPRESCI AWARD – CPH:DOX 2026

Mejor Película DOCS BARCELONA 2026

**LA SINOPSIS**

En 1996, un oficial brasileño y un periodista sueco se adentraron en el Amazonas para documentar a la tribu aislada de los **Korubo**, atrapada en crecientes conflictos territoriales. Inicialmente aclamado como un avance heroico, el material ahora exige ser reexaminado. La película revela los costes ocultos del "descubrimiento", confronta el legado colonial y expone las repercusiones a largo plazo para los **Korubo**.

**EL TEMA**

Cultura, derechos humanos, historia, minorías étnicas.



**LA DIRECCIÓN**

**Nathan Grossman** es un director de documentales sueco, conocido por centrarse en temas sociales y ambientales. Comenzó su carrera como fotógrafo para Rolling Stone y pasó al cine con el cortometraje viral THE TOASTER CHALLENGE, sobre el consumo de energía humana. En su debut en el largometraje, I AM GRETA, siguió a **Greta Thunberg** desde el primer día de su huelga escolar hasta la fama mundial. La película se estrenó en Venecia y TIFF y ganó numerosos premios.



**LA HISTORIA**

En otoño de 1996, **Sydney Pousselo**, director del Departamento de Pueblos Indígenas Aislados, emprendió una expedición al Amazonas para localizar a los **Korubo**, una de las últimas tribus que aún vivían aisladas en Brasil. Los **Korubo** se veían envueltos en un conflicto cada vez más grave con los madereros, pescadores y colonos locales. La situación se estaba volviendo insostenible, con numerosas víctimas en ambos bandos.
La idea de **Sydney** era establecer un contacto pacífico con el grupo y delimitar un territorio para ellos y para otros grupos de la zona.
La expedición fue documentada por **Erling Söderström**, un periodista y cineasta sueco. Con acceso total a **Sydney** y a su equipo, **Erling** capturó uno de los materiales fílmicos más extensos jamás vistos sobre una expedición de contacto. Parte de ese material se incluyó en un aclamado documental que **Erling** realizó sobre su experiencia en el encuentro, pero la mayor parte nunca se utilizó.
Treinta años después de la expedición de contacto, las cintas de **Erling** se están digitalizando y reexaminando, y las conversaciones de contacto están siendo traducidas por los miembros supervivientes del grupo.

# DOCS DEL MES

07/10




19:30h | 85 min | VOSE

**TÍTULO**
LES CULPABLES
**AÑO** 2026
**PAÍS** España
**IDIOMA**
Catalán, castellano
**DIRECCIÓN**
Marta Durán Lozano

## LA SINOPSIS

Después de años de silencio sobre el aborto que vivió en su adolescencia, **Marta** recibe un centenar de testimonios anónimos de mujeres que han vivido lo mismo que ella. Llevando estas historias a la pantalla, junto con seis chicas que dan voz y rostro a estos relatos silenciados, abre un espacio compartido donde lo silenciado se convierte en colectivo.

## PREMIOS Y FESTIVALES

Sección oficial en el DocsBarcelona, 2026

Thessaloniki International Documentary Festival, Film Forward Competition 2026

## EL TEMA

Adolescencia, sexualidad, mujer.

## LA HISTORIA

Es 2020. El mundo entero está encerrado en un confinamiento total y **Marta** cuelga un anuncio en las redes sociales. Busca historias de mujeres que hayan abortado durante su adolescencia. Ocho años después de su propio aborto, **Marta** se dispone a abrir la herida para sanarla de una vez por todas. De esta forma comienza un proceso creativo con tres chicas adolescentes, que leen los testimonios con **Marta**, reflexionan y encuentran paralelismos con sus propias historias. Hablan de su contexto, sus diferencias y sobre cómo representarlas. Las ponen en escena y las relacionan entre sí. Su proceso artístico, complejo, real y mutante, pone imágenes, voces y nombres a un suceso tan común como tabú.



## LA DIRECCIÓN

**Marta Durán Lozano** es directora y guionista. Licenciada en Comunicación Audiovisual, también cursó el Máster en Documental de Creación de la Universitat Pompeu Fabra. En el marco del máster comenzó a desarrollar LES CULPABLES, su ópera prima. La película ha pasado por Acción Viver de Dones Visuals, DOK Co-Pro Market y D'A Film Lab, entre otros. También ha recibido el Premio al Mejor Proyecto en Desarrollo en el Atlàntida Mallorca Talents Lab y uno de los Premios Laya 2025 por la reflexión y defensa de los derechos humanos.
Actualmente, es residente de la Residencia de Guiones de la Academia del Cine Catalán, donde escribe su primera película de ficción, EL PREC DE LES FERES, bajo la tutoría de **Pol Guasch**.



# DOCS DEL MES

04/11

## NUMAKAGE PISCINA PÚBLICA



| 19:30h | 80 min | VOSE |
|---|---|---|

**TÍTULO**
NUMAKAGE PISCINA PÚBLICA
**AÑO** 2025
**PAÍS** Japón
**IDIOMA** Japonés
**DIRECCIÓN**
Shingo Ota

**EL TEMA**

Arquitectura, ciudad, LGTBIQ+.

**LA SINOPSIS**

Durante más de cincuenta años, **Numakage**, una piscina pública suburbana de Tokio, ha sido un punto de encuentro entre personas mayores, familias y comunidades de cruising gay. Ante su demolición, a pesar de la oposición local, la película recorre el duelo colectivo a través de las cinco etapas de **Kübler-Ross**, cuestionando una pérdida normalmente reservada a la muerte humana.

**PREMIOS Y FESTIVALES**

Sección Oficial – Tessaloniki Documentary Festival 2026 (Croacia)

Se cción Oficial – Docs&-Ciutat – DocsBarcelona 2026 (España)

Premio del Jurado étudiant – Competición Oficial KINOTAYO Film Festival 2025 (Francia)

**LA DIRECCIÓN**

**Shingo Ota** nació en 1985, en la prefectura de Nagano. Se graduó en la Universidad de Waseda, donde estudió Filosofía y Narratología. Su primer largometraje documental, THE END OF THE SPECIAL TIME WE WERE ALLOWED (2013), se presentó en el Festival Internacional de Cine Documental de Yamagata 2013 y se distribuyó en doce países de todo el mundo. AT KINOSAKI (2022) ganó el Premio a la Excelencia en el Festival Internacional de Cine Fantástico de Yubari 2022. La producción escénica THE LAST GEISHAS combina artes escénicas y documental, y tuvo su estreno mundial en el Festival d'Automne, el mayor festival de artes escénicas de Europa, en 2024.









# DOCS DEL MES

09/12




| 19:30h | 82 min | VOSE |
|---|---|---|

**TÍTULO** LA PIETÀ
**AÑO** 2026
**PAÍS** España, Islandia y Lituania
**IDIOMA** Islandés e inglés
**DIRECCIÓN** Pepe Andreu y Rafa Molés

**LA SINOPSIS**

**Flosi Björnsson** y sus hermanos se aislaron, hace más de un siglo, a los pies del mayor glaciar de Islandia. Ninguno se casó ni tuvo hijos; dedicaron sus vidas al glaciar antes de que nadie hablara de su deshielo. Su granja permaneció cerrada hasta ahora. El fotógrafo **Ragnar Axelsson** regresa e invoca la voz de **Flosi**, que atrae a peregrinos. El glaciar canta un réquiem, envuelto en un sudario blanco.

**EL TEMA**

Arte Medioambiental, misterio, rural.

**PREMIOS Y FESTIVALES**

Sección Oficial – Festival Internacional DocsBarcelona 2026

Thessaloniki International Documentary Festival 2026 Premio "Valores Humanos" del Parlamento Helénico







**LA DIRECCIÓN**

**Pepe Andreu** y **Rafa Molés** trabajan juntos en la escritura de guion y la dirección de documentales desde 2013. Sus películas han sido seleccionadas en festivales como San Sebastián, Visions du Réel, Dok. Munich o Thessaloniki. Sus obras anteriores incluyen LOBSTER SOUP (2020), PICOTAZOS CONTRA EL CRISTAL (2019) y FIVE DAYS TO DANCE (2014).

**LA HISTORIA**

Hace más de un siglo, **Flosi Björnsson** y sus ocho hermanos se aislaron a los pies del Vatnajökull, el glaciar más grande de Islandia. Ninguno de ellos se casó ni tuvo hijos. Dedicaron sus vidas al glaciar mucho antes de que nadie hablara de su deshielo.
Como el esqueleto de una ballena en la orilla, su granja ha permanecido sellada hasta ahora. El fotógrafo **Ragnar Axelsson** regresa al lugar donde pasó los veranos de su infancia. Al abrir las puertas de la granja, la voz de **Flosi** resuena una vez más, llamando de forma invisible a otros peregrinos que acuden al glaciar. Sus crujidos componen un réquiem. Un vasto manto blanco cubre la piel del glaciar, como un sudario sobre el cuerpo de un hijo moribundo.

# DOCS DEL MES

13/01

| 19:30h | 77 min | VOSE |
|---|---|---|




**TÍTULO** UN ZORRO BAJO LA LUNA ROSA
**AÑO** 2025
**PAÍS** Irán, Francia
**IDIOMA** Persa, turco
**DIRECCIÓN** Mehrdad Oskouei, Soraya Akhlaghi

**PREMIOS**

Premio del Jurado Joven – Reteena – Sección Oficial Visions, DocsBarcelona, 2026

Premio a la Mejor Película de la Competición Internacional, IDFA 2025

**LA SINOPSIS**

**Soraya**, una artista afgana de dieciséis años, documenta utilizando únicamente su teléfono móvil sus intentos de escapar de Irán durante un período de cinco años, con la esperanza de reunirse con su madre en Austria. Combinando imágenes personales, animación y escultura, la película deja al descubierto la determinación de **Soraya** para abrirse su propio camino.

**EL TEMA**

Derechos humanos, migración, mujeres



**LA DIRECCIÓN**

**Mehrdad Oskouei** es un cineasta, productor y fotógrafo iraní conocido por su trabajo profundamente humanista. Ha dirigido, producido y escrito más de 25 documentales y cortometrajes, proyectados en prestigiosos festivales internacionales, obteniendo más de 180 premios.
La codirectora **Soraya Akhlaghi** es una artista multidisciplinar que trabaja en los campos de la escultura, la pintura y el cine. Entre 2018 y 2025 trabajó como directora de fotografía, ingeniera de sonido y codirectora de la película UN ZORRO BAJO LA LUNA ROSA, dirigida y producida por **Mehrdad Oskouei**, de la que es también el personaje principal.





**LA HISTORIA**

Con solo 16 años, **Soraya** crea dibujos y esculturas tan bellos como inquietantes y ya lleva cinco intentando escapar de Irán para reunirse con su madre en Austria.
Este autorretrato, lleno de matices, entrelaza escenas estremecedoras de sus intentos de fuga con noticias políticas sobre Afganistán y vídeos donde canta, baila o muestra los moratones que le ha dejado su marido. Casada con un hombre violento, está decidida a construir su propio futuro.
**Mehrdad Oskouei** dirigió la película a distancia, mientras la misma **Soraya** grabó todo el material con su teléfono móvil. En sus dibujos y esculturas (que modela con cartones de huevos remojados o con arcilla que recoge durante sus rutas de fuga), plasma todas sus inquietudes, alegrías y miedos. En muchas de sus obras aparecen figuras recurrentes: un zorro fiel que lo acompaña en el viaje, una luna rosa que vela siempre por ella y un payaso que nunca ríe, personaje con quien **Soraya** se siente identificada.

# DOCS DEL MES

03/02




| 19:30h | 90 min | VOSE |
|---|---|---|

**TÍTULO** REPLICA
**AÑO** 2026
**PAÍS** Australia, Francia
**IDIOMA** Chino, inglés
**DIRECCIÓN**
Chouwa Liang

**EL TEMA**

Mujeres, romántico, tecnología

**LA SINOPSIS**

En la China contemporánea, tres mujeres recurren a amantes creados con IA para llenar vacíos emocionales marcados por la familia, el matrimonio y la independencia. A medida que sus relaciones virtuales se profundizan, REPLICA revela la frágil frontera entre la libertad emocional y la dependencia de la IA, explorando cómo la IA transforma el amor, la intimidad y el género en la China actual.

**PREMIOS Y FESTIVALES**

Premio Silver Alexander – Festival Internacional de Documentales de Thessaloniki 2026

Mención Especial a Mejor Largometraje Internacional – Doc Edge Festival 206

Selección Oficial – Visions du Réel 2026
Sección Oficial – Festival Internacional DocsBarcelona 2026



**LA DIRECCIÓN**

**Chouwa Liang** es una cineasta documental afincada en Pekín. Se graduó en el programa de documental del Victorian College of the Arts de la Universidad de Melbourne. Desde 2018, ha dirigido varios cortometrajes documentales y un largometraje documental.
Su obra explora a menudo las dinámicas cambiantes de la intimidad en la sociedad china contemporánea, especialmente desde una perspectiva femenina. Sus cortometrajes han sido difundidos en plataformas como el New York Times Op-Docs, Aeon (EE. UU.) y PBS Rhode Island.
Fue comisaria del Mother Film Festival entre 2022 y 2025. Además, fundó el taller "Mama Makes Films", una plataforma creativa que anima a las madres chinas a compartir sus voces a través de la realización de documentales.



UN DOCUMENTAL AL MES
HILEAN BEHIN DOKUMENTAL BAT

# DOCS DEL MES

SEPTIEMBRE 26 - JUNIO 27 IRAILAK 26 - EKAINAK 27

SESIONES MATINALES
**PARA ESCOLARES**
(ESO y Bachillerato)

GOIZEKO SAIOAK
**IKASLEENTZAT**
(DBH eta BATXILERGOA)

Más información y reservas
Informazio gehiago eta erreserbak
**golem@golem.es**

# DOCS DEL MES

09/09




| 19:30 | 93 min | JBGA |
| --- | --- | --- |

**IZENBURUA** AMAZOMANIA
**URTEA** 2026
**HERRIALDEA** Suedia, Danimarka, Frantzia
**HIZKUNTZA** Portugesa, suediera, ingelesa, frantsesa eta koruboa **ZUZENDARIA** Nathan Grossman

**SARIAK**

Film dokumental onenaren Teddy Saria - Berlinale 2026
FIPRESCI AWARD – CPH:-DOX 2026
DOCS BARCELONA 2026 Film Onenaren Saria

**SINOPSIA**

1996an, ofizial brasildar bat eta kazetari suediar bat Amazonasen barruratu ziren **Korubo** tribu isolatua dokumentatzeko, gero eta usuago gertatzen ari diren lurralde-gatazken artean harrapatutako tribu bat. Hasiera batean, aurrerapen heroikotzat jo zuten, baina materiala berriz aztertu beharra dago orain. **Korubo**ak "aurkitu" izanaren ezkutuko ondorioak erakutsi, ondare koloniala aurrez aurre jarri eta haiengan epe luzera izandako eragina azaltzen du filmak.

**GAIA**

Kultura, giza eskubideak, historia, gutxiengo etnikoak



**ZUZENDARITZA**

**Nathan Grossman** dokumental-zuzendari suediarra da, gizarte- zein ingurumen-gaiei heltzeagatik ezaguna. Argazkigintzan hasi zuen ibilbide profesionala, Rolling Stonen, eta THE TOASTER CHALLENGE film labur biralarekin (gizon-emakumeen energia-kontsumoari buruzkoa) igaro zen zinemagintzara. Bere lehen film luzean, I AM GRETA, **Greta Thunberg**i segitu zion, ikastetxeko lehen greba-egunetik mundu-mailan famatu arte. Filma Venezian eta TIFFen estreinatu zuten, eta hainbat sari jaso zituen.



**HISTORIA**

1996ko udazkenean, **Sydney Pousselo** Herri Indigena Isolatuen Departamentuko buruak espedizio bat egin zuen Amazonasen barna, **Korubo** tribua topatzeko, Brasilen oraindik isolatuta bizi ziren azken tribuetako bat. Koruboak gatazka gero eta larriagoan murgilduta zeuden tokiko egur-saltzaile, arrantzale eta kolonoekin. Egoera larri-larria bilakatzen hasia zen, hildako ugari zirela bi bandoetan.
**Sydney**ren asmoa zen taldearekin kontaktu baketsua ezarri eta lurralde bat mugatzea haientzat zein inguruko beste talde batzuentzat.
**Erling Söderström** kazetari eta zinemagile suediarrak dokumentatu zuen espedizioa. Erabateko kontaktua izan zuen **Erlingek Sydney**rekin eta haren taldearekin, eta, horrela, kontaktu-espedizio bati buruz inoiz ikusitako film-material zabalenetako bat grabatu zuen. Material horren zati bat **Erling**ek kontaktuan bizitako esperientziari buruz egindako dokumental entzutetsu batean sartu zuten, baina gehiena ez zen inoiz erabili.
Kontaktu-espediziotik hogeita hamar urtera, **Erling**en zintak digitalizatzen era berraztertzen ari dira, eta bizirik iraun duten taldeko kideak kontaktuko elkarrizketak itzultzen ari dira.

# DOCS DEL MES

10/07




| 19:30 | 85 min | JBGA |
|---|---|---|

**IZENBURUA**
LES CULPABLES
**URTEA** 2026
**HERRIALDEA** Espainia
**HIZKUNTZA**
Katalana, gaztelania
**ZUZENDARITZA**
Marta Durán Lozano

**SINOPSIA**

Nerabezaroan bizi izan zuen abortuaren inguruko urtetako isiltasunaren ostean, **Marta**k gauza bera bizi izan duten emakumeen ehun bat testigantza anonimo jasotzen ditu. Historia horiek pantailara eramanez –isilarazitako kontakizun horiei ahotsa eta aurpegia ematen dieten sei neskaren eskutik–, espazio partekatu bat zabaltzen du, isilarazitakoa kolektibo bihurtzeko.

**SARIAK ETA JAIALDIAK**

Sail ofiziala Docs Barcelonan, 2026an

Thessaloniki International Documentary Festival, Film Forward Competition 2026

**GAIA**

Nerabezaroa, sexualitatea, emakumea.

**HISTORIA**

2020 da. Mundu osoa erabat konfinatuta dago, eta **Marta**k iragarki bat jarri du sare sozialetan. Nerabezaroan abortatu duten emakumeen historien bila dabil. Martak abortatu zuenetik zortzi urte igarota, zauria irekitzeko prest dago, behingoz sendatzeko. Hala, sormen-prozesu bati ekingo dio hiru neska neraberekin batera: **Marta**rekin testigantzak irakurri, hausnartu, eta haien historiekin paralelotasunak topatzen dituzte. Nork bere testuinguruaz, ezberdintasunez eta, batez ere, haiek erakusteko moduaz hitz egiten du. Eszenaratu eta bata bestearekin lotzen dute. Prozesu artistiko, konplexu, benetako eta mutanteak ahotsak eta izenak ematen dizkio ohiko bezain tabu den gertaera horri.



**ZUZENDARITZA**

**Marta Durán Lozano** zuzendaria eta gidoigilea da. Ikus-entzunezko Komunikazioan lizentziatu zen, eta Sorkuntzako Dokumentala masterra egin zuen Pompeu Fabra Unibertsitatean. Masterrean zegoelarik, LES CULPABLES garatzen hasi zen, bere opera prima. Besteak beste, Acción Viver de Dones Visuals-en, DOK CoPro Market-en eta D'A Film Lab-en izan da filma. Garapenean dagoen proiektu onenaren Saria ere jaso zuen Atlàntida Mallorca Talents Lab-en, baita 2025 Layaarietako bat ere, giza eskubideen inguruko gogoeta eta defentsagatik.
Egun, Kataluniako Zinemaren Akademiaren Gidoien Egoitzan dago, bere lehen fikziozko filma idazten (EL PREC DE LES FERES), **Pol Guasch**en tutoretzapean.



# DOCS DEL MES

11/04

## NUMAKAGE PISCINA PÚBLICA



| 19:30 | 80 min | JBGA |
|---|---|---|

**IZENBURUA**
NUMAKAGE PISCINA PÚBLICA
**URTEA** 2025
**HERRIALDEA** Japonia
**HIZKUNTZA** Japoniera
**ZUZENDARITZA**
Shingo Ota

**GAIA**

Arkitektura, hiria, LGTBIQ+

**LA SINOPSIS**

Berrogeita hamar urtez baino gehiagoz, Tokioko hiri inguruko Numakage igerileku publikoa adinekoen, familien eta gay cruising komunitateen topaleku izan da. Tokikoak kontra agertu arren, hura eraisteko erabakia irmoa da. Filmak dolu kolektiboa zeharkatzen du Kübler-Rossen bost etapen bidez, normalean gizon-emakumeen heriotzari lotutako galera bat zalantzan jartzen duelarik.

**SARIAK ETA JAIALDIAK**

Sail Ofiziala – Tessaloniki Documentary Festival 2026 (Kroazia)

Sail Ofiziala – Docs&Ciutat – DocsBarcelona 2026 (Espainia)

Étudiant epaimahaiaren Saria – Lehiaketa Ofiziala, KINOTAYO Film Festival 2025 (Frantzia)



**ZUZENDARITZA**

**Shingo Ota** 1985ean jaio zen, Nagano prefekturan. Filosofia eta Narratologia ikasi zuen, Wasedako Unibertsitatean.. Bere lehen film luze dokumentala, THE END OF THE SPECIAL TIME WE WERE ALLOWED (2013) Yamagatako Zinema Dokumentaleko Nazioarteko Jaialdian aurkeztu zuten, 2013an, eta mundu osoko hamabi herrialdetan banatu zuten.

AT KINOSAKI (2022) lanak Yubariko Zinema Fantastikoko Nazioarteko Jaialdian Bikaintasunaren Saria irabazi zuen, 2022an THE LAST GEISHAS ekoizpen eszenikoak arte eszenikoak eta dokumentala uztartzen ditu, eta Festival d'Automnen, Europako arte eszenikoen jaialdirik handienean, mundu-mailan aurkeztu zuen, 2024an.







# DOCS DEL MES

12/09

| 19:30 | 82 min | JBGA |
|---|---|---|




**IZENBURUA** LA PIETÀ
**URTEA** 2026
**HERRIALDEA** Espainia, Islandia, Lituania
**HIZKUNTZA**
Islandiera eta ingelesa
**ZUZENDARITZA** Pepe Andreu eta Rafa Molés

**GAIA**

Ingurumen-artea, misterioa, landa

**SINOPSIA**

Duela mende bat baino gehiago, **Flosi Björnsson** eta bere anaiak Islandiako glaziarrik handienaren oinetan bakartu ziren. Ez ziren ezkondu, ez eta seme-alabarik eduki. Bizitza glaziarrari eman zioten, inork haren urtzeaz hitz egin aurretik. Haien etxaldea itxita egon da orain arte. **Ragnar Axelsson** argazkilaria itzuli, eta **Flosi**ren ahotsari heldu dio, erromesak erakartzen dituelarik. Glaziarrak requiem bat abesten du, hil-oihal zuri batean bildurik.

**SARIAK ETA JAIALDIAK**

Sail Ofiziala – DocsBarcelona Nazioarteko Jaialdia 2026

Thessaloniki International Documentary Festival 2026, Parlamentu Helenikoaren "Giza Balioak" saria







**ZUZENDARITZA**

**Pepe Andreu** eta **Rafa Molés** 2013tik aritu dira elkarrekin gidoiak idazten eta dokumentalak zuzentzen. Heien pelikulak hainbat jaialditan hautatu dituzte, hala nola Zinemaldia, Visions du Réel, Dok. Munich eta Thessaloniki. LOBSTER SOUP (2020), PICOTAZOS CONTRA EL CRISTAL (2019) eta FIVE DAYS TO DANCE (2014) dira haien aurreko lanetako batzuk.

**HISTORIA**

Duela mende bat baino gehiago, **Flosi Björnsson** eta bere anaiak Vatnajökull-en oinetan bakartu ziren, hots, Islandiako glaziarrik handienean. Ez ziren ezkondu eta ez zuten seme-alabarik eduki. Bizitza glaziarrari eman zioten, inork haren urtzeaz hitz egin baino askoz lehenago.
Balea baten hezurdura itsasertzean bezala, haien etxaldea zigilatuta egon da orain arte. **Ragnar Axelsson** argazkilaria haurtzaroko udak igaro zituen lekura itzuli da. Etxaldeko ateak irekitzean, **Flosi**ren ahotsak berriro durundi egin, eta glaziarrera doazen beste erromes batzuei dei ikusezina egiten die. Karraskek requiem bat konposatzen dute. Mantu zuri handi batek estaltzen du glaziarraren azala, hilzorian dagoen semearen gorpuaren gaineko hil-oihala balitz bezala.

# DOCS DEL MES






| 19:30 | 77 min | JBGA |
|---|---|---|

**IZENBURUA** UN ZORRO BAJO LA LUNA ROSA
**URTEA** 2025
**HERRIALDEA** Iran, Frantzia
**HIZKUNTZA** Persiera, turkiera
**ZUZENDARITZA** Mehrdad Oskouei, Soraya Akhlaghi

**SARIAK**

Epaimahai gaztearen Saria – Reteena – Visions Sail ofiziala, DocsBarcelona, 2026

Film onenaren Saria, Nazioarteko Lehiaketa, IDFA 2025

**SINOPSIA**

**Soraya** Afganistango hamasei urteko artista da; mugikorra baino ez erabiliz, bost urtez Irandik ihes egiteko, amarekin Austrian elkartzeko esperantzaz, egindako saiakerak dokumentatu ditu. Irudi pertsonalak, animazioa eta eskultura konbinatuz, filmak agerian uzten du **Soraya**k bidea egiteko duen determinazioa.

**GAIA**

Giza eskubideak, migrazioa, emakumeak



**ZUZENDARITZA**

**Mehrdad Oskouei** zinemagile, ekoizle eta argazkilari irandarra da, bere lan oso humanistagatik ezaguna. 25 dokumental eta film labur baino gehiago zuzendu, ekoitzi eta idatzi ditu, nazioarteko jaialdi ospetsuetan proiektatu dituztenak, 180 sari baino gehiago eskuratuta.
**Soraya Akhlaghi** kozuzendaria diziplina anitzeko artista da, eta eskulturan, pinturan eta zinemagintzan aritzen da. 2018tik 2025era, **Mehrdad Oskouei**k zuzendu eta ekoitzitako UN ZORRO BAJO LA LUNA ROSA filmean argazki-zuzendari, soinu-ingeniari eta kozuzendari aritu zen eta, gainera, pertsonaia nagusia da.





**HISTORIA**

16 urte baino ez ditu **Soraya**k, eta marrazki zein eskultura eder bezain aztoragarriak sortzen ditu. Bost urte daramatza Irandik ihes egiten saiatzen, amarekin Austrian elkartzeko.
Xehetasunez beteriko autorretratu honek ihes egiteko saiakeren eszena lazgarriak, Afganistani buruzko albiste politikoak eta bideoak barne hartzen ditu (kantatzen, dantzatzen edo senarrak utzitako ubeldurak erakusten agertzen da bideoetan). Gizon biolento batekin ezkonduta, bere etorkizuna eraiki nahi du.
**Mehrdad Oskouei**k urrutitik zuzendu zuen filma, eta **Soraya**k berak grabatu zuen material guztia mugikorrarekin. Marrazki eta eskulturetan –uretan utzitako kartoizko arrautza-ontziekin edo ihesbideetan hartzen dituen buztinekin moldatzen ditu–, ezinegonak, pozak eta beldurrak islatzen ditu. Figura batzuk behin eta berriz agertzen dira bere lan askotan: bidean lagun duen azeri leiala, protagonista beti zaintzen duen ilargi arrosa eta inoiz irri egiten ez duen pailazoa, zeinarekin identifikatuta sentitzen baita **Soraya**.

# DOCS DEL MES

02/03




| 19:30 | 90 min | JBGA |
|---|---|---|

**IZENBURUA** REPLICA
**URTEA** 2026
**HERRIALDEA**
Australia, Frantzia
**HIZKUNTZA**
Txinera, ingelesa
**ZUZENDARITZA**
Chouwa Liang

**GAIA**

Emakumeak, amodioa, teknologia

**SINOPSIA**

Txina garaikidean, hiru emakumek AAk sortutako maitaleak baliatzen dituzte familiak, ezkontzak eta independentziak markatutako hutsune emozionalak betetzeko. Harreman birtualok sakondu ahala, askatasun emozionalaren eta AArekiko mendetasunaren arteko muga ahula erakusten du REPLICAk, AA maitasuna, intimitatea eta generoa egungo Txinan nola aldatzen ari den esploratzen duelarik.

**SARIAK ETA JAIALDIAK**

Silver Alexander saria – Thessaloniki Dokumentalen Nazioarteko Jaialdia 2026

Nazioarteko film luze onenaren Aipamen Berezia– Doc Edge Festival 2026

Sail Ofiziala – Visions du Réel 2026

Sail Ofiziala – DocsBarcelona Nazioarteko Jaialdia 2026



**ZUZENDARITZA**

**Chouwa Liang** Pekinen bizi den zinemagile dokumentala da. Melbourneko Unibertsitateko Victorian College of the Arts-eko dokumentalen programan graduatu zen. 2018az geroztik, hainbat film labur dokumental eta film luze dokumental bat zuzendu ditu.
Txinako gizarte garaikidean intimitateak dituen dinamika aldakorrak esploratzen ditu maiz bere obrak, emakumeen ikuspegitik bereziki. Bere film laburrak hainbat plataformatan hedatu dira, besteak beste, New York Times Op-Docs, Aeon (AEB) eta PBS Rhode Island. Mother Film Festival jaialdiko komisarioa izan zen 2022tik 2025era. Gainera, “Mama Makes Films” tailerra sortu zuen, Txinako amek dokumentalen bidez beren ahotsak partekatzera adoretzen dituen sormenezko plataforma.



UN DOCUMENTAL AL MES
HILEAN BEHIN DOKUMENTAL BAT

# DOCS DEL MES

SEPTIEMBRE 26 - JUNIO 27 IRAILAK 26 - EKAINAK 27

SELLA TU PASAPORTE CULTURAL
ZIGILATU ZURE KULTUR PASAPORTEA

DÍAS - EGUNAK - **2026** - 09/09 - 07/10 - 04/11 - 09/12 - **2027** - 13/01 - 03/02 - 03/03 - 07/04 - 05/05 - 02/06

DALE CRÉDITO A TU CULTURA

upna

EMAN KREDITUA ZURE KULTURARI